



LANGABEZIA ERREGISTRATUA


Abenduan leundu egin zen EAEko langabeziaren igoera

Abenduan, erregistratutako langabeziaren bilakera positiboa izan zen; izan ere, Lanbideko bulegoek argitaratutako azken datuen arabera, langabeen kopuruak gora egiten jarraitu zuen, baina aurreko hilekoetan baino gutxiago. Beraz, igoerak hiru hilabeteko beheranzko joera erakutsi du. Zehazkiago adierazita, 2020. urtea 2019ko hilabete berean baino 15.078 langabe gehiagorekin itxi zuen EAEk, %13,2ko igoera batekin. Hala ere, hila-


bete horrek urte osoko bilakaera neurri batean arindu bazuen ere, urteko balantzea ez zen ona izan. Zehazki, urteko batez besteko langabezia % 17,1 igo zen, eta zifra horiek ez ziren 2009tik ikusten, finantza krisi handitik, alegia. Hala eta guztiz ere, EAEko lan merkatuak nolabaiteko erresistentzia gaitasuna erakutsi du, 2020an BPGak izan zuen beherakada inoiz izan den handiena izan dela kontuan hartuta.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ABENDUA
%13,2



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK




LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Erresistentzia horren erakusgarri, adierazi behar da abenduan 17.210 langabe gutxiago zeudela abuztuan izandako maximoan (146.450) baino, pandemia lehertu eta hileko batzuetara jaso baitzen kopuru hori. Birusaren agerpenak erabateko konfinamendua ekarri zuen martxoan, eta hainbat murrizketa, langabeziaren zifra maximo horretaraino igo zutenak. Ondorengo hobekuntzan ez zuten berdin parte hartu gizonak eta emakumeek. Hala

bada, gizon langabetuen kopurua %15,1 hazi zen eta emakume langabetuena, berriz, %11,7, funtsezkotzat jotzen diren jardueretako asko, hala nola osasuna edo konfinamenduan zehar irekita geratu zen merkataritzaren zatia, oso feminizatuta daudelako. Sektoreka aztertuta, langabeziak zerbitzuetan izan zuen gorakadarik handiena, ostalaritzak izan zituen mugengatik.

LANGABEAK

	2019ko abendua	2020ko abendua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	114.162	129.240	15.078
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.722	21.727	3.005
Bizkaia	65.117	73.080	7.963
Gipuzkoa	30.323	34.433	4.110
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	51.168	58.898	7.730
Emakumeak	62.994	70.342	7.348
25 urtetik beherakoak	7.879	10.708	2.829
25 urte baino gehiago dutenak	106.283	118.532	12.249
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.509	2.714	205
Industria	14.326	16.002	1.676
Eraikuntza	8.295	8.642	347
Zerbitzuak	75.457	86.341	10.884
Lehenago lan egin dutenak	100.587	113.699	13.112
Lehenago lan egin ez dutenak	13.575	15.541	1.966
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.435	20.435	2.000

Iturria: SEPE.